

ILUSTRATZAILEAREN TXOKOA: MAITE ROSENDE

ERAKUSKETA

AIETE KULTUR ETXEA

Ekainak 15 – Irailak 11

Ordutegia

Astelehenak eta jaiegunak itxita.

Asteartetik ostiralera: 16:00-20:30

Larunbata: 10:00-14:00 / 16:30-20:00

Igandea: 10:00-14:00

Udako ordutegia: Ekainak 24- Irailak 4

Asteartetik ostiralera: 10:00-14:00

Larunbata: 10:00-14:00 / 16:30-20:00

Igandea: 10:00-14:00

ILUSTRATZAILEAREN TXOKOA

2012ko urrian Aiete Kultur Etxean Ilustratzailearen Txokoa ireki zenetik, bertatik igaro dira ilustratzaile klasiko eta berriak: Iban Barrenetxea, Eider Eibar, Elena Odriozola, Antton Olariaga, Maite Gurrutxaga, Aitziber Alonso, Jokin Mitxelena, Estibalitz Jalón, Jon Zabaleta, Belén Lucas, Leire Urbeltz, *Marrazioak* topaketetako artistak, Asun Balzola, Iñaki Martiarena *Mattin*, Ainara Azpiazu *Axpi*, Concetta Probanza, Unai Zoco, Begoña Durruty, Dani Maiz, Lorena Martínez, Idoia Beratarbide, Tomás Hernández Mendizábal, Iraia Okina, Dani Fano, Andrea Escargot, Iker Ayestaran, Yolanda Mosquera, Asier Iturralde, Miren Asiain Lora, Paul Caballero, *Irrimarra* bikotea (Irene Irureta eta Karmele Gorroño), Ana Ibañez, Ane Arzelus eta Iñaki Landa. Orain, Maite Rosenderen txanda da.

MAITE ROSENDE (DONOSTIA, 1991)

Maite Rosende pinturez inguratuta bizi izan da beti. Batxiler artistikoa bukatu eta Horma Pinturako goi-mailako gradua ikasi zuen Bartzelonako Goi Mailako Arte eta Diseinu Eskolan. Ondoren Ilustrazio Goi Mailako zikloa egin zuen Llotja Eskolan, Bartzelonan. Diziplina artistikotan etengabe trebatzeaz gain, diseinu grafikoaren, argazkintzaren eta bideo edizioaren arloetan ere formazioa jasotakoa da. Euskal Irudigileak eta Galtzagorri Elkarteetako kide da.

Kartelgintzan lan ugari eginikoa da eta 2015, 2016 eta 2017an irabazi zuen Donostiako Zinemaldiaren kartel lehiaketa, sail ezberdinetarako eginiko lanekin. Muralismoaren alorrean ere lan egiten du, 2021ean Donostiako *Altza Apain* Kaleko Arte Topaketetan eta Zaragozako *Asalto* Jaialdian parte hartu zuelarik.

Liburuen ilustraziogintzan aritzen da. Hain zuzen ere, Pello Añorgarekin batera *Din dilin dan* (Denonartean, 2022) euskal ahozko tradizioetik jasotako kantu, poema eta testuez osatutako liburua ilustratu berri du eta argitaletxe berarekin plazaratuko du 2021eko udazkenean *Guruyi* Jon Lorentek idatzitako komikia eta yoga lantzeko karta jokoak. *El viaje de la luz* (Diquesi argitaletxea) liburuko ilustrazioak egin zituen, Puño eta Carmen Saldañarekin batera. Azken honek Madrileko Udalak 2016an antolatu zuen liburuaren diseinuari zegokion saria eskuratu zuen. Bere ilustrazio lanen errekonozimendu gisa, 2021eko Iberoamerikar Ilustrazio katalogoan Rosenderen lana hautatua izan da.

Haur eta helduentzat ilustrazio tailerrak eman ditu Donostiako arte gune ezberdinetan, Zaldi Urdinan eta Undermounten, besteak beste; eta erakunde ezberdinentzat ilustrazio eta diseinu grafikoaren alorreko lanak egin izan ditu.

Bakarkako zein taldekako erakusketak paratu ditu, Donostiako Arteuparte Galerian eta Zaldi Urdina gunean, Tolosako Gko galerian eta Aranburu jauregian.

Kolore biziko ilustrazio dinamiko eta geometrikoak egiten ditu teknika ezberdinak erabiliz. Haurrek mundua ikusteko duten modua inspiratzen dutenetakoa da eta, horregatik, agian, bere marrazkiak beti mugimenduan daude. Ez dio beldurrik marrazteari, bere iritziz

marrazteko ez omen da “asko pentsatu behar”. Marraztuz “ondo pasatzea” da Rosenderen helburua.

MAITE ROSENDE SARE SOZIALETAN:

www.instagram.com/maiterosende/

www.facebook.com/MaiteRosendellustracion/

HARREMANETARAKO KONTAKTUA

kulturekintza@donostia.eus

943 48 38 40